

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Klinika funtziona dezan, pazienteekiko eta bazkideekiko harremana jariakorra izan behar da, komunikazioa ezinbestekoa delako.

Hori dela eta, bi harreman landuko ditugu: zuzena eta zeharkakoa.

- **Zuzena:** aurrez aurre landuko dugun komunikazio mota da. Modu horretan, garrantzitsuak diren gaiak landuko ditugu eta bidean, komunikazioa oztopatzen dituzten elementuak ekidin ditzazkegu, besteak beste, argi hitz eginez, komunikatzaileen keinuak identifikatzen e.a. Horregatik, komunikazio mota honen bitartez, **pazienteak tratatuko ditugu**

(atentzio pertsonalizatua eskainiko diegu, higiene aholkuak emango dizkiegu, tratamenduak azalduko dizkiegu, e.a) eta **hitzaldiak emango ditugu** (honen helburua, ohikoak diren aho gaixotasunen prebalentzia jaitea da.



Hori lortzeko, ikastoletan eta erakunde publikoetan, hitzaldiak emango ditugu, gaztetik jakin dezaten zein garrantzitsua den aho osasun egokia izatea.

Horretaz gain, udaletxearekin eta diputazioarekin komunikazio zuzena ere erabiliko dugu, bilerak egiteko. Honen helburua, pazienteen eta proiektuaren garapenari buruz hitz egitea eta hitzarmenak adostea da.

- **Zeharkakoa:** ahoz eta telefonoz landuko dugun harremana da. Hau, udaletxearekiko dago bideratuta, haiek izango direlako **pazienteen kudeaketa egingo** dutenak guk aurretik ezarritako segmentazioa kontuan hartuta.

